



KONTABILITATE MUGIMENDUEN
KAPITULUAREN BIDALKETA MASIBOAREN
ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK ETA
TEKNIKOAK V1.0.0

Bertsioaren data: 2023/10/02

AURKIBIDEA

1 SARRERA	4
1.1 Dokumentuaren helburua	4
1.2 KMK eremua eta indarrean jartzea.....	4
1.3 KMKren egitura, betearazpena eta epeak	4
2 BERTSIOEN KONTROLA	5
2.1 Hasierako 1.0 bertsioa	5
3 LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK:	6
4 KONTABILITATE MUGIMENDUEN KAPITULUAREN INFORMAZIOA	7
4.1 Edukia	7
5 KONTABILITATE MUGIMENDUEN KAPITULUAREN ZERBITZUAK	8
5.1 Aitorpenaren aurkezpenaren zerbitzua	8
5.1.1 1. urratsa Datu orokorreari alta emateko eragiketa (7.1 azpikapituluaren).....	8
5.1.2 2. urratsa Mugimenduen alta eragiketa (7.2 azpikapituluaren)	9
5.1.3 3. urratsa Osotasuna egiaztatze eragiketa (7.1 azpikapituluaren).....	10
5.2 Ordezkapen aitorpenak aurkezteko zerbitzua	10
5.3 Aitorpenak ezeztatze eragiketa	11
5.3.1 Aitorpena ezeztatze eragiketa (7.1 azpikapituluaren).....	11
5.4 Aitorpenak kontsultatzeko zerbitzua	11
5.4.1 Datu orokorrak kontsultatzeko eragiketa (7.1 azpikapituluaren).....	11

5.4.2	Mugimenduen kontsulta eragiketa (7.2 azpikapituluua).....	12
6	ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK KMK BIDALTZEKO	13
6.1	Sarrera plataformarako eskaera	13
6.1.1	HTTP goiburua.....	13
6.1.2	Gorputza.....	14
6.2	Sarrera plataformaren erantzuna.....	15
6.2.1	Erantzunaren HTTP goiburua.....	15
6.2.2	Erantzunaren gorputza.....	15
7	KMK ZERBITZUAREN AKATSEN KIDEAKETA.....	16
7.1	KMK zerbitzuen erantzuna.....	16
7.1.1	HTTP erantzun kodea (HTTP response status code)	16
7.1.2	Irteera HTTP goiburuaren parametroak.....	16
7.1.3	HTTP eskaeraren gorputza.....	16
7.2	Akatsak osotasuna egiaztatzean.....	17
8	ADIBIDEAK.....	18

1 SARRERA

BATUZ jarduera ekonomikoak gauzaten dituzten pertsona fisikoen edo izaera juridikorik ez duten erakundeen zergak kontrolatzeko estrategia orokorra da, baita pertsona juridikoen eta espainiar estatuan egoiliarrek ez diren eta bertan modu iraunkorren kokatuta egonik lan egiten duten zergadunen jarduera ekonomikoak kontrolatzeko ere, betiere Bizkaiko PFEZri, Sozietateen gaineko Zergari edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga araubideari atxikita baldin badaude. BATUZ kudeaketa eredu berria da, eta bere helburuak jarduera ekonomikoaren zerga ordainketen kontrola gehitzea eta zergadunek betebeharrak betetzeko erraztasunak ematea dira.

BATUZ-ek hiru oinarritzko elementu hauek ditu: fakturazioak kontrolatzeko TicketBAI sistema, Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuak (EEL) izateko betebeharrak eta zergadunei ematen zaien laguntza, zerga betebeharrak bete ditzaten.

1.1 Dokumentuaren helburua

Dokumentu honen helburua zehaztapen eta betekizun funtzional eta teknikoak definitzea da Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuko Kontabilitate Mugimenduen Kapituluak (aurrerantzean, KMK) betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak makinaz makina informazioa bidaltzeko garatutako plataformaren bidez.

1.2 KMK eremua eta indarrean jartzea

Kokatze iraunkorraren bidez Espainiako lurraldean jarduten duten pertsona juridiko guztiek eta zergadun ez egoiliarrek (betiere Bizkaiko PFEZren araubideari, Sozietateen gaineko Zergari eta EEEZi atxikita daudenek), derrigorrez EELak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikora eraman beharko dituzte.

KMK indarrean sartuko da indarreko araudian adierazitakoaren arabera.

1.3 KMKren egitura, betearazpena eta epeak

KMK Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuan sartzen da, zehazki 240 ereduaren 7. kapituluan. Kapitulu honetan zergadunaren jarduera ekonomikoari buruzko kontabilitate informazioa idatzi behar da.

Oro har, aurkezteko epea kontabilitate aldia itxi ondoren hasten da, eta 4 hilabete geroago amaitzen.

Epeen barne egiten ez diren aitortpenak epez kanpo erregistratu behar dira. Ondorio horietarako, gogorarazten da Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikokoaren bitartez EEL eramateko betebeharrak atzeratzeak zehapenak sortu litzakeela, eta beraz, gomendatzen da aitortpena epea itxi bezain laster aurkeztea.

KMKren informazioa betetzeko aukera hauek daude:

- Modu masiboan egindako bidalketak, hau da, makinatik makinara egindako jakinarazpenak; horixe da hain zuzen ere agiri honen helburua.
- Eskuz, BFaren egoitza elektronikoan.

2 BERTSIOEN KONTROLA

2.1 Hasierako 1.0 bertsioa

Dokumentuaren sorrera.

IRIBORROA

3 LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK:

Agiri honen ondorioetarako, hauek izango dira definizioak:

Bezeroen aplikazioa: BFAz kanpoko softwarea, Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako sarrera zerbitzuen plataformari EEELen informazioa bidaltzeko eskatzen diona.

KMK: Kontabilitate Mugimenduen Kapitulumia

BFA: Bizkaiko Foru Aldundia.

SZ: Sozietateen gaineko Zerga.

JSON: Java Script Object Notation, datuak trukatzeko testu formatu sinplea.

EEEL: Eragiketa ekonomikoen erregistro liburua

IFZ: Identifikazio Fiskalerako Zenbakia.

HTTP response status code: bezero baten nabigatzailearen aldeko eskaera bati erantzunez zerbitzari batek igorritako zenbakizko kodea da. Egoera kode horiek zerbitzariaren funtzionamenduari buruzko komunikazio azkarra eta laburra egiteko balio dute, bezeroaren eskaerari erantzunez.

Zergapekoa: PFEZen araubidearekin bat eginez, jardura ekonomikoa gauzatzen duen pertsona fisikoa edo izaera juridikorik gabeko erakundea, SZi atxikita dagoen pertsona juridikoa, edo espainiar estatuan egoiliarra ez den eta bertan kokatze iraunkorraren bidez lan egiten duen zergaduna, EEELi atxikita dagoena.

REST: Representational State Transfer.

XML: eXtended Markup Language etiketak markatzeko lengoia bat da, SGMLtik eratorria, eta dokumentuen egitura definitzeko balio du.

XSD: XML Schema Definition lengoia bat da, eta XML dokumentu baten egitura definitzeko balio du, berau baliozkotzea ahalbidetuz.

4 KONTABILITATE MUGIMENDUEN KAPITULUAREN INFORMAZIOA

4.1 Edukia

CMC informazioa bi azpikapitulutan bereizita dago:

- 7.1 – Aitorpenaren datu orokorrak Aurkeztuko den aitordena definitzeko informazio orokorra.
- 7.2 – Aitorpenaren mugimenduak. Aldi jakin batean aitordena osatzen duten mugimendu guztiak.

PJ-en EEEL, 240	
7 – Kontabilitate mugimenduak (KMK)	7.1 – Aitorpenaren datu orokorrak 7.2 – Aitorpenaren mugimenduak


KMKren azpikapituluetan egin daitezkeen eragiketak errazago ulertzeko, fitxategi bat sortu da sarrerako eta irteerako informazioaren egiturekin. Fitxategi hori eskuragarri dago deskargatzeko "Dokumentazio tekniko" atalean, Batuzen web orrian, "KMK-Egiturak" loturan.

5 KONTABILITATE MUGIMENDUEN KAPITULUAREN ZERBITZUAK

5.1 Aitorpenaren aurkezpenaren zerbitzua

KMK betetzeko beharrezko eragiketak ematen ditu, **bidalketa masiboen** sistemaren bidez.

Aitorpenaren informazioa hiru eragiketa desberdinen bidez aurkezten da, jarraian deskribatzen diren hiru urrats sekuentzialetan:



5.1.1 1. urratsa Datu orokorreki alta emateko eragiketa (7.1 azpikapituluua)

7.1 azpikapituluaren altaren hasierako bidalketa da, zergapeko baten KMKren aldi jakin baterako aitortpena definitzen duen informazioarekin:

- Aitorpenaren zergaldiaren hasiera eta amaiera data.
- 7.2 azpikapituluuan bidali beharreko mugimendu blokeen guztizko kopurua.
- Erakunde ez aktiboa aldi horretan (Bai/Ez).
- Ordezko aitortpena (Bai/Ez).
- IFZen forma juridikoa aldatzea aldi horretan.
- Kontabilitate eredu mota.

- Urteko kontuen informazioa.
- ...

Eragiketari egindako eskaera baliozkoa bada, haren erantzunak adierazpena zein egoeratan geratu den jasotzen du (**blokeak jasotzeke**), bai eta adierazpenaren barne identifikatzailea ere, ondoren mugimendu blokeak bidaltzeko beharrezkoa izango dena.

5.1.2 2. urratsa Mugimenduen alta eragiketa (7.2 azpikapitulua)

Aitorpenaren datu orokorreari alta eman ondoren, mugimenduak bidali behar dira. 1. urratsean itzulitako adierazpenaren identifikatzailea erabiliz, eta dagokion bloke zenbakia adieraziz, adierazpenari dagozkion mugimendu guztiak bidaliko dira, blokez bloke (bloke bidalketa eragiketari dagokion eskaera bati dagokio). Behar adina bloke bidaliko dira aurkezpena osatu arte, betiere honako muga hauek kontuan hartuta:

- Gehienez 10.000 mugimendu egon daitezke bloke bakoitzeko.
- Bloke bat baino gehiago izanez gero, guztiek, azkenak izan ezik, 8.000 mugimendu izan behar dituzte gutxienez.

Mugimendu bakoitzeko, datu hauek eman behar dira:

- Kontabilitate idazpenaren data.
- Kontabilitate idazpen mota (Alta/Aldaketa/Erregularizazioa/Itxiera).
- Kontabilitate idazpenaren zenbaki korrelatiboa.
- Kontabilitate idazpenaren lerroko zenbaki korrelatiboa.
- Kontuaren kodea
- Zorraren zenbatekoa.
- Hartzekoaren zenbatekoa.
- ...

Eragiketari egindako eskaera baliozkoa bada eta blokean bidalitako informazioak baliozkotzeak betetzen baditu, blokea hartutzat joko da eta aitorpenaren egoera hauetako bat itzuliko da:

- **Blokeak jasotzeke**, aitorpenak 1. urratsean adierazitako bloke guztiak jasotzen amaitu ez badu.
- **Osotasuna egiaztatzeke**, 1. urratsean adierazitako bloke guztiak jaso direnean, baina adierazpena oraindik ere, osorik, egiaztatu ez denean.

Bidalitako blokea baliozkoa ez bada, mugimendu guztiak baztertuko dira eta berriz bidali beharko dira.

Blokeak, idazpenak eta idazpen lerroak sortzeko ordena. Mugimendu blokeak ordena kronologikoan sortuko dira, eta gakoa adierazpenaren identifikatzaileak (datu orokorren alta eragiketak itzulitako erreferentzia) eta zenbaki sekuentzial batek osatuko dute. Zenbaki sekuentzial hori 1 zenbakiarekin hasiko da eta unitate bat gehituko da sortutako bloke bakoitzeko, datu orokorretan adierazitako bloke kopurua osatu arte.

Blokeak idazpenez eta idazpen lerroez osatuta daude, eta horiek ere ordena kronologikoan sortu beharko dira, gako korrelatiboekin. Ordena hori bete beharko da, bai bloke mailan, bai aitorpen mailan, oro har.

Nolanahi ere, blokeen bidalketa eta prozesatze konkurrentea errazteko eta malgutzeko, sistemak aukera emango du blokeak sortzeko ordena ez den beste batean jasotzeko.

Ezeztapen automatikoa. Sistemaren arabera, aitorpen baten 7.1 azpikapituluko datu orokorrak bidaltzen direnetik, gehienez, 10 eguneko epea dago mugimenduei dagozkien bloke guztiak bidaltzeko. Hamar eguneko epe horretan bloke guztiak bidali ezean, aitorpena zuzenean ezeztatuko da.

Osotasuna egiaztatzea. Bloke guztiak jaso eta balioztatu ondoren, sistemak datu orokorren eta multzoetan bidalitako mugimendu guztien osotasuna baliozkotu behar du. Baterako baliozkotze horri "Adierazpenaren osotasuna egiaztatzea" deritzo, eta sistemak asinkronoki egiten du, azken mugimendu blokea bidaltzen denetik 48 orduko epean gehienez ere. Hori dela eta, aitorpenaren alta prozesuan nahitaezko azken eragiketa bat dago (3. urratsa).

5.1.3 3. urratsa Osotasuna egiaztatzeko eragiketa (7.1 azpikapitulu)

Eragiketa hori azken urratsa da aitorpen bat aurkezteko prozesuan. Bere helburua da eskatutako aitorpenaren egoera esparruaren bidez osotasuna egiaztatzea eta "Osotasun akatsa" egoera izanez gero, osotasuna egiaztatzean gertatutako akatsak ezagutzea.

Informazio hori eskatzeko, eskaeran bertan, aitorpenaren identifikatzailea besterik ez da bidali behar.

Kontsultaren emaitza gisa aitorpenaren honako egoera hauek izango dira:

- **Blokeak jasotzeke.** Oraindik ez dira bloke guztiak jaso. Aitorpena datu orokorretan adierazitako mugimendu blokeak jasotzeke dago (alta 7.1). Baztertutako blokeak ez dira kontuan hartuko.
- **Osotasuna egiaztatzeke.** Datu orokorretan adierazitako bloke guztiak behar bezala jaso dira. Hala ere, oraindik ez dira egin modu asinkronoan egiten diren multzo baliozkotzeak.
- **Aurkeztuta.** Aitorpenak behar bezala jaso ditu beharrezko datu guztiak, eta, gainera, osotasun baliozkotzeak zuzenak izan dira. Aitorpena egoera horretan behar bezala aurkeztutzat joko da.
- **Errorea osotasunean.** Aitorpenak ez ditu osotasunaren baliozkotzeak gainditu. Beharrezkoa da aitorpena berriro bidaltzea, datuak zuzenduta.
- **Ezeztatuta.** Aitorpena berariaz baliogabetu du zergapekoak, ezeztapen zerbitzuaren bidez, edo sistemak automatikoki baliogabetu du. Aitorpena berriro bidali behar da.

5.2 Ordezkapen aitorpenak aurkezteko zerbitzua

Aitorpenak aurkezteko zerbitzu estandar bera da, baina aitorpenaren datu orokorretan ordezkotako aitorpen bat dela adierazi behar da. Aurkeztutako ordezkotako aitorpen batek ordeztuko du zehaztutako aldiaren aurreko aitorpen bat, aurreko aitorpen hori baliogabetuz.

Illo horretan, azpimarratu behar da ordezkotako aitorpena zuzena ez bada edo aurkezten den

bitartean ezeztatzen bada, aurreko aitorenak Ogasunerako baliagarria izaten jarraituko duela eta datu horiek hartuko direla kontuan.

Soilik "Aurkeztuta" egoera duten aitorenak ordezkatu daitezke.

5.3 Aitorpenak ezeztatzeko zerbitzua

Aitorpen baten datuak zuzentzeko edo berriz bidaltzeko honako aukera hauek daude:

- Ordezkatzeko aitorpen altaren zerbitzua erabiltzea (aurreko puntuan deskribatuta). Soilik "Aurkeztuta" egoera duten aitorenentzako.
- Edo bidalitako datuak ezeztatu eta, berriz ere, aitorpenaren altaren prozesua bete. Ezeztatzeko zerbitzuaren bidez, "Aurkeztuta", "Blokak jasotzeko" eta "Osotasuna egiaztatzeko" egoeran dauden aitorenak ezeztatu daitezke.

5.3.1 Aitorpena ezeztatzeko eragiketa (7.1 azpikapituluak)

7.1 azpikapituluko ezeztatze batek adierazpen baten gainean egindako bidalketa guztiak baliogabetzen ditu, bai datu orokorrak (7.1 altaren), bai bidalitako mugimendu blokeak ere (7.2 altaren). Ezeztatzeko, aitorpenaren identifikatzailea aurkeztu behar da sarrera parametro gisa.

Eragiketari egindako eskaera zuzena bada, aitorpena "Ezeztatuta" egoeran jarriko da. Ezeztatutako aitorpen batean bidalitako datuak ez dira kontuan hartuko.

Ezeztapen automatikoa. Bestalde, sistemaren arabera, aitorpen baten 7.1 azpikapituluko datu orokorrak bidaltzen direnetik, gehienez, 10 eguneko epea dago mugimenduari dagozkien bloke guztiak bidaltzeko. Hamar eguneko epe horretan bloke guztiak bidali ezean, aitorpena zuzenean ezeztatuko da.

5.4 Aitorpenak kontsultatzeko zerbitzua

Sistemara bidalitako informazioa itzultzen du, onartutakoa/jasotakoa. Ez du itzultzen baztertutako bidalketei buruzko datuak.

5.4.1 Datu orokorrak kontsultatzeko eragiketa (7.1 azpikapituluak)

Zergapeko batek aurkeztu dituen aitorenak ezagutzeko aukera ematen du, baita horietako bakoitzerako emandako informazio orokorra ere.

Aukera hauek ematen ditu:

- Ekitaldi jakin bateko aitorpen guztiak lortzea.
- Aitorpen bakarra lortzea, aitorpenaren identifikatzailetik abiatuta.

Erantzunean, hautaketa irizpideak betetzen dituen adierazpen bakoitzerako, datu hauek ematen dira:

- Datu orokorren altaren aurkezpenari buruzko informazioa (aurkezpenaren data eta IFZ).
- Aitorpenaren egoera.
- Aitorpenaren datu orokorrak.
- Kontrol guztiak, "Aurkeztuta" egoera duten aitorenentzako.

- ...

5.4.2 Mugimenduen kontsulta eragiketa (7.2 azpikapitulua)

Jasotako bloke baten mugimenduen informazioa ezagutzeko aukera ematen du. Bloke horiek mugimenduak altan emateko eragiketa baten bidez jaso ziren, aurretik (7.2 alta).

Kontsulta egiteko, eskaeran, aitopnaren identifikatzailea jakinarazi behar da, bai eta bloke zenbakia ere.

Itzultzen duen mugimenduen blokearen informazioa hau da:

- Mugimenduen blokearen aurkezpenari buruzko informazioa (aurkezpenaren data eta IFZ).
- Blokearen mugimendu bakoitzaren altarako emandako informazioa.
 - Kontabilitate idazpenaren data.
 - Kontabilitate idazpen mota (Alta/Aldaketa/Erregularizazioa/Itxiera).
 - Kontabilitate idazpenaren zenbaki korrelatiboa.
 - Kontabilitate idazpenaren lerroko zenbaki korrelatiboa.
 - Kontuaren kodea
 - Zorraren zenbatekoa.
 - Hartzekoaren zenbatekoa.
 - ...

6 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK KMK BIDALTZEKO

Kontabilitate mugimenduen aitortena BFAra **bidalketa masiboan** sistemaren bidez bidaliko da, BFAk garatutako sarrera plataformaren bitartez.

BFAko sarrera plataformako dokumentazio tekniko xehatua honako estekan ikusi daiteke:

 [Servicio Entradas descripcion tecnica llamada v 1 0 5.pdf](#)

6.1 Sarrera plataformarako eskaera

REST motako web zerbitzu batera egindako deien bitartezko jakinarazpenak dira. Bezeroen aplikazioak BFAren sarrera plataforman eskaria egin beharko du:

Oinarrizko URLa [aurkezpen, ordezkapen edo ezeztapen](#) zerbitzuetarako hau da:
<https://sarrerak.bizkaia.eus/N3B4000M/aurkezpena>.

Oinarrizko URLa [kontsulta](#) zerbitzurako hau da:
<https://sarrerak.bizkaia.eus/N3B4001M/kontsulta>.

Sarrera plataformarako eskaerek HTTP goiburu bat, gorputz bat eta honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Deiak POST mota erabiliz egin behar dira.
- Ziurtagiri elektronikoa erabili behar da.
- Kodea UTF-8 da. Horrenbestez, karaktere jokoak da kode hori onartzen duena.

6.1.1 HTTP goiburua

Honako parametro hauek jasotzen dira eskaeraren **HTTP goiburuan**, honako balio hauekin:

- **Accept-Encoding** = *gzip*.
- **Content-Encoding** = *gzip*.
- **Content-Length** = mezuaren gorputzaren tamaina.
- **Content-Type** = *application/octet-stream*.
- **eus-bizkaia-n3-version** = *1.0*.
- **eus-bizkaia-n3-content-type** = *application/xml*.
- **eus-bizkaia-n3-data** = json fitxategiaren edukia.

Json fitxategiaren edukia:

- Kontzeptua: kontzeptuaren kodea da, erregistratu nahi denarekin lotuta dagoena; kasu honetan "EEEL".
- Atala: EEEL egiturari dagokion zenbakia adierazi behar da derrigorrez. KMKren kasuan, hauetako bat izan beharko litzateke:
 - **"7.1"**: aitortpen baten datu orokorrekin lotutako eragiketak.

- "7.2": aitorten baten mugimenduekin lotutako eragiketak.
- Interesduna: zergapekoaren datuak, zein pertsona juridikori lotuta egin den erregistroa.
- Datu garrantzitsuak: aurkeztu nahi den eredia identifikatzeko beharrezko datuak dira.
 - Eredua: aurkezteko eredia da (KMK: 240 eredia).
 - Ekitaldia: zergaldiaren hasierako urteari dagokion ekitaldiarekin bete beharrekoa.

Datu horiek zuzentasunez jakinarazi behar dira, modu honetan:

- Adierazpenaren datu orokorren alta eragiketarako adibidea:

```
eus-bizkaia-n3-data = {  
  "con": "EEEL",  
  "apa": "7,1",  
  "inte": {  
    "ifz": "identifikazio fiskaleko  
zenbakia", "nrs": "sozietatearen  
izena",  
  },  
  "drs": {  
    "mode": "240",  
    "ekitaldia": "ekitaldia"  
  }  
}
```

6.1.2 Gorputza

KMK eragiketari buruzko informazio zehatza duten datuak eskaera **gorputzean** jasotzen dira.

Ekitaldian bidali beharreko informazioa sortzeko, bezeroen aplikazioak honako pausoak gauzatu beharko ditu:

- **XML** fitxategi bat sortzea, eragiketari dagokion egituran oinarrituta.
- Fitxategi hori GZIP formatuan konprimatzea.
- Konprimatutako fitxategia eskariaren gorputzean gehitzea.

Eskaeran txertatzeko XML fitxategiaren egitura honela zehaztu behar da:

- Teknikoki, XSD eskema bidez. Balioztatu egingo dira eragiketen eskaerak dagokien eskemari egokitzen direla egiaztatzeko. Eskuragarri daude deskargatzeko "Dokumentazio tekniko" atalean, Batuzen orrialdea web orrian, "KMK- XSD eskemak" izeneko aukeran.
- Kontzeptualki, KMK eragiketen egituren bidez. Egitura horiek eskuragarri daude deskargatzeko

“Dokumentazio teknikoa” atalean, Batuzen orrialdea web orrian, “KMK-Egiturak” aukeran.

XSD eskemak eta eskaera eta erantzun egiturak daude.

6.2 Sarrera plataformaren erantzuna

Sarreraren plataformaren erantzunak HTTP goiburu bat eta gorputza izan beharko ditu baita ere.

6.2.1 Erantzunaren HTTP goiburua.

Erantzunaren HTTP goiburuan honako datuak ematen ditu:

- **eus-bizkaia-n3-mota-erantzuna:** eskariaren egoera orokorra. Honako balio hauetako bat adieraziko du: Zuzena / Okerra.
- **eus-bizkaia-n3-kodea-erantzuna:** sortu den akatsaren kodea. *eus-bizkaia-n3-mota-erantzuna* eremuaren balioa okerra den adierazten du.
- **eus-bizkaia-n3-mezua-erantzuna:** sortutako akatsaren mezua. *eus-bizkaia-n3-mota-erantzuna* eremuaren balioa okerra den adierazten du.
- **eus-bizkaia-n3-identifikatzailea:** egindako sarreraren identifikatzaile bakarra. Identifikatzaile hori generikoa eta indibiduala da sarrera plataformara bidalketa bakoitza egiteko, baina ez da KMK aitortpenaren identifikatzailea. KMK aitortpenaren identifikatzailea datu orokorreari alta emateko eragiketaren (7.1 azpikapitulu) erantzunaren gorputzean txertatuta dago eta aitortpenari dagozkion bidalketen multzoa identifikatzen du.
- **Content-Encoding** = *gzip*.
- **Content-Type:** *application/XML*.

6.2.2 Erantzunaren gorputza

Sarreraren zerbitzuak erantzunaren gorputza bidaltzen du, XML fitxategi bat GZIP formatuan konprimatuta, prozesuko emaitzari buruzko informazio xehatua duena.

Erantzunen XML fitxategien egitura honako erantzun eskemen arabera egin da, eragiketa bakoitzeko.

Ikusi “KMK-Eskemak XSD” eta “KMK-Egiturak” atal honetan: “Dokumentazio teknikoa” (Batuzen webgunean).

7 KMK ZERBITZUAREN AKATSEN KIDEAKETA

Atal horretan, puntu bakar batean bildu nahi dira zerbitzuen bezeroek KMKren zerbitzuetara egindako bidalketen erantzunetan tratatu behar dituzten kasuistikak, zuzena izan den zehazteko, eta, okerra izanez gero, akatsak zehazteko.

7.1 KMK zerbitzuen erantzuna

KMK zerbitzuen eskaerei erantzuna emango zaie. Eskera zuzena izan den zehazteko kontuan izan behar da http erantzunaren egoera kodea, goiburua eta gorputza (hala badagokio).

Eskaera bat zuzena ez bada, bidalketa baztertuko da eta informazioa berriz bidali beharko da.

7.1.1 HTTP erantzun kodea (HTTP response status code)

Erantzun kodea ez badago 200 eta 299 bitartean, KMK zerbitzuari egindako bidalketa okertzat joko da.

Erantzun kodea 200 eta 299 artean badago, webguneko zerbitzuaren bezeroak HTTP erantzunaren goiburuaren parametroak egiaztatu beharko ditu zehazteko akatsik dagoen negozioaren ikuspuntutik sarrera datuetan, ziurtagirian, etab.

7.1.2 Irteera HTTP goiburuaren parametroak

Erantzunaren http kodea 200 eta 299 artean badago, bezeroak goiburuaren honako esparru hauek egiaztatu beharko ditu eragiketaren emaitzari buruzko informazio zehatzagoa ezagutzeko:

- eus-bizkaia-n3-mota-erantzuna: KMKren kasuan balioak soilik "Zuzena" edo "Okerra" izan daitezke.
- eus-bizkaia-n3-kodea-erantzuna: akatsaren kodea bidalketa okerra bada.
- eus-bizkaia-n3-mezua-erantzuna: akatsaren kodeari lotutako akats mezua.

Hortaz, bidalketa zuzena izan dadin, erantzunak 200-299 artean izan beharko du erantzunaren http kodea eta "eus-bizkaia-n3-mota-erantzuna" goiburuaren esparrua "Zuzena" izan beharko da.

"eus-bizkaia-n3-mota-erantzuna" esparrua okerra bada, "eus-bizkaia-n3-kodea-erantzuna" eta "eus-bizkaia-n3-mezua-erantzuna" esparruek KMK negozio akatsen deskribapenak eta akats kodeak izango dituzte. Akats kodeak eta deskribapenak ikusi daitezke "KMK-Baliozkotzeak eta akatsak" dokumentuan, eskuragarri Batuzen webguneko "Dokumentazio tekniko" atalean.

7.1.3 HTTP eskaeraren gorputza

Oro har, bidalketa okerre ez dute gorputzik itzultzen HTTP eskaeraren erantzunean.

Nolanahi ere, mugimendu akatsekin lotutako baliozkotze okarren kasuan, 1.2 azpikapituluko mugimenduen alta eragiketak itzuli egiten du HTTP eskaeraren gorputza mugimendu oker bakoitzaren honako informazio honekin:

- Idazpen zenbakia akatsa: akatsa hauteman den idazpena, zehaztu ahal izanez gero.
- Idazpen lerroa akatsa: akatsa hauteman den idazpen lerroa, zehaztu ahal izanez gero.
- Akats kodea. Ikusi dokumentu hau: "KMK-Baliozkotzeak eta akatsak". Eskuragarri dago Batuzen webgunean.
- Akatsaren deskribapena. Ikusi dokumentu hau: "KMK-Baliozkotzeak eta akatsak". Eskuragarri dago Batuzen webgunean.

Nolanahi ere, HTTP eskaeraren gorputzean emandako informazioak osatu egiten ditu goiburuko datuak.

7.2 Akatsak osotasuna egiaztatzean

Bidalketa guztiak behar bezala jaso dira eta aitortpena betetzeko beharrezko informazioa jaso da.

Hala ere, osotasunaren egiaztapena okerra izan da. Sistemak egiaztapena modu asinkronoan egiten du aitortpenaren informazio guztia jaso eta aztertu ondoren.

Bezeroak eskaera bat egin behar du osotasuna egiaztatzeko eragiketarako. Eragiketa horrek emango du erantzuneko http eskaeraren gorputzean aitortpenaren egoeraren berri bai eta osotasun egiaztapenari lotutako akatsen berri ere (hala badagokio): idazpen zenbaki akatsa, idazpen lerroa, akats kodea eta akatsaren deskribapena. Ikusi dokumentu hau: "KMK-Baliozkotzeak eta akatsak". Eskuragarri dago Batuzen webgunean osotasun akatsen deskribapen eta kodeen deskribapen xehatua izateko.

Osotasun akatsak dituen aitortpen bat zuzenean ezeztatutzat joko da eta zergapekoak hasieratik hasi beharko du aitortpena, hautemandako akatsak zuzenduta.

8 ADIBIDEAK

Ikusi eskuragarri dauden adibideak "Dokumentazio tekniko" atalean, Batuzen web orrian, "KMK-Adibideak" loturan.

IRRIBORROA